

~ ~ ~

Argitaraberri dugu Orixe'k euskaraturiko "Agustin Leunaren Aitorkizunak". Liburu bikaña! Ohore bearrik ez du gure euskeraren idazle gatailen dugun Orixe ospetsuak. Pera dugu nagusi ta gidari, euskera-lantze ontan. Bere ikurrira daramagu eguno euskal-idazleok. "Aitorkizunak" irakuragi onek 462 orrialde ditu. Itzaurrez "Aturia'ko ta Akiza'ko gotzai txit agurgarri Clement matnieu Yaunari" zuzenduriko idazkitxo bat dakar. Azken atalburuaren ondoren "iztegitxo" bat erabilli itzak erderaturik. Iritz-epaia? Ezin eman irakurri gabe; gañera onen bearri ere eztu. Orixe'na duzu. Spaiturik dago. Garrantzi aundiko liburua du euskeramailan, Orixe'bearak idazki ortan dakarrenez: "Besterik ez bada ere, ezin esan, S. Agustiñek, euskerari op aundi egiñen ez dionek. Caerkotik au gelditu diteke, Biblia leku, euskal-lisururik bikañena".

~ ~ ~

Euskal-idazleek jarabilgungo ondorio aundiko akats bat ager nai nuke emen. Ara bi certakizun:

Arantzazuko teologilarri batzuem artean "glorias de maría" euskeratzen ari giñan aspaldidianik. Amaitze ari gera oraintxe. Orain bi iliajete edo jakin genuan beste apaiz bat ere ari ortantxe ari zala. Au joakerea! Itxoiten egon giñan ia zer gerta... azkenin -gu arrara gotuak geunda-ta- berak eginuako dana gemri eman zigun.

zer derizkiozute! milia idazle pagina ere!

San Iñazio'ren bizitzakin ere berdin gerta omen da. Iru vizitz batera euskerazten!

Sail ontan agertu ditzagun oakizkigun lanen berri. Serez dager onen bearra.

~ ~ ~

Iesede bat. Aldizkari au askoren eskuetara iritxiko da. Guzien iritziak nai senituzke, ta iritzi, auek idatziz bialtzea. Iritzi sakonenak ementxe argitarako ditugun. Erakutsi euonori -euskerak ajoladunei batez ere ta jakin-gizonak badira eskatu iritzia.

~ ~ ~

~ ~ ~

Lerro auetatik aipatu ta onoretu nai genituzke ezagun ta asmokide ditugun zenbait emakume aupagarri. Aipatu besterik ez ditugu eitten, ezpaitakigu beren lanen berri, zeatz beintzat. Gauz bat adierazi nai nieke: atseginez artuko genituzkela beren lanbideen berriak. Ia unnerako bidaltzen dizkiuten.

Pat Zipitri emakumea duzue. "Ira" sasi-izenez ezaguna da. Emakume bizkor ta eraikorra. Ari dituan zenbait lanen berri badakigu, baño naiago dugu berak azaltzea. Eztu lotsik izango!

Bestea, "Uargi" ko neska jatorra. Onelako neskak asko bear genituzke Euskalerrian egun! Lan ixilla ta ondoriotsua ari duana badakigu! Ausi beza bein bateagaktik apaltasun-muga ori, ta bere ekitearen berri azaldu emen. Bejondaiola Mari Cruz Franco Zubalegi'ri!

Beste zenbait txit aupagarri ere ezagutu genitun Euskaltzaleen Biltzar artan. Besteen artean Gazteiz'ko neska gazte batzuk. Euskera-ikasiak ta euskera-ren irakasle! Bejondaiela!

"Skin ta Yarrai" emakumeok!

~ ~ ~

Askotan uste baño egiago egin genezake! Biltzar ortantxe jakin genun Valencia'n dagon apaiz aurgarri euskaldun batek Aramayona'ra oporraldiak igarotzera yoan ta pertan egin zuana:

Artu umetxoak berekin ta kristau-ikasbidea euskeraz irakatsi. Elkartasunezko mezak eginarazi umetxoei jestelako jakingarriak euskeraz adierazi. Mendi-egunak, arrats-mendi-ibilkerak t.a... Euskal oiturak erein nunai, ta euskararen alde lan ederra burutu. Nork eztaki errialde oietan gure euskera pikuetara dijoana?

Zenbat eta zenoat apaizek eta apaiagiek ere egin lezaketen olako zerba!... Ikasi dezuun!

~ ~ ~

~ ~ ~

Arantzazu'go urte bantu ontarako gertuak zeuden zenbait sarkataen berri eman dezagun:

Olerki-sarketa: Arantzazu'ri buruzko olerki oat. Aita Gaudiaga gertatu da Saraille edo "txapeldun". Ezaguna duzue olerkari aue lendik ere. Olermen zorrotza euskal-usaizkoa du oso. Joandan urtean ere berak iravazi zizun. Ohore veroak egin dizkiote euskaltzaleek. Izango aal augu bere olermen-irakitearen arnari yoriak milixkatzeko zoria! Jarrai bekio ortan artu beza ere "Yakin" aldizkariareh zorionik sutsuena!

Zorion Aita Gaudiaga!

Itz-lauzkoa : orain Extremadura'n dagoan euskaldun oatek irabazi dizu. Benengo-mailaren txapeldun duzu. Ez dut izenaren berri. Bigarrena Berasaluze'tar Jabin, prantziskotarra. Ats-aundiko idazlea duzu au ere, naiz ta gazteño izan. Zorionak Sabiñ!

Sinfoni-poema sarketa : Gaia Arantzazu'ri buruzkoa. Patxi Eskudero duzu Saraille. Ezaguna zaizu noski "Illetak" 'ren egilea. Bejondaiola & Jarrai & Zaiola bide ortatik, euskla-arnasezko gai oietik!

Bigarren Duo Vital duzu. Maurid'eko duzu; emen izan genun erdi-xoraturik euskla-paraje auetan bere lanerako arnasartzen!... Bejondaiola ere!



DIAZ MOLINA - EUSKAL HERRIKO LIBURUAK
DIAZ MOLINA - LIBURUAK EUSKAL HERRIKO LIBURUAK